EUSKUALDUNA.

Ez dakit zendako, bainan egiazki, naiago niz eskualdun, Parisiano baino, eta egun guziez Yainkoari eskerrak daizkot, nuelakotz sorarazi mendi zoko batean, arrano ume baten pare.

irri eginen dute Parristarrek au adituz,—leitzen banute segurik, eta ez dut batere oore ori desiratzen— irri eginen dute, mespretchatuko nute espaldak altchatuz, mustatchak biribilkatuz erranen dute:

Eskualdun urgulutsu charra!!

Bai, bai, nai duzuen bezenbat, bainan ni ola, ni laket emen, niunere ez Eskual erria bezain ederrik, sanorik, aberatsik; eskualduna mundu guziko gizonik ederrena, azkarrena, zuzenena. Eskual-erriko airia bera, mendier beera eldu dena, ain da ona, nun azten baigaitu kasik bakarrik, ez osoki, badugu bertzalde ogi eta arto.—Gure urek balio dute, bertze Frantziako arnuek baino geiago, eta Eskual-errian ez dugu bakarrik ura edaten, arno t̄int̄a zenbait ere churgatzen dugu, tokikuak tokian; batere komerziorat edatu gabe, eta bearriak zenbait aldiz berotu eta chirtuz asten zauzku Iroulegiko eta Larzabaleko iśkiriotaren ondotik. Bai, eskualdunak ola nola giren, eta berriz ere diot Pariseko karrika ederretan baino laketago naizela, neure alorren erdian, eta gure mendietako chendera ertsietan.

Zér duzue Parisen? Etche eder eta gorak? Neure leyotik ikusten dut etcheto bat arroka baten puntan landatua. Ez duzue bat Parisen, aren gorarik. Eder, zuen etcheak. Ederrago dira gure mendiak beren oyanekin, beren itzalekin, beren ur krichtaila bezain garbiakin. Ederrago itsasoa; ezen Eskual-errian, Yinkoak, bere anditasunaz beti gu oroitaraazteko, eman dauzkigu munduko bi gauza andienak, mendiak eta itsasoa. Ederrago itsasoa bere ur geldiakin miraila baten pare, bere ur samurtu, orruaz leiorrerat eldu direnekin, iduri bear dutela bere az-

pian lur guzia iretsi. Ez, ez, Parisen ez da deusik urbiltzen denik anditasunez edo edertasunez, guk ditugun bi gauza orier, mendiak eta itsasoa.

¿Badituzue musikak? ¿eta guk? Eya, eya; Parisano guziak elgarrekin yarririk ere, ezpainak eta matelak anpatuz, eginen duzuenez, itsasoak egiten duen musika, egiten duen kantua. Atch ez dut beldurrik. Eta mendietan, zer aire ez dugu entzuten? Iduri zerutik yeusten zaukula, zer da botz airoz eta zilarrezko ori; charamelatuz, elizako aire zaar bat kantatzen duen ori. Erri guziak ezagutzen du. Yaun erretoraren beterra mendi kasketik eldu da, bere bi auntzak aitzinean, errepikan ari dira ura bere botzaz, auntzak beren yuarez eta egiazki choragarri da. Eta bertze dardarika ori, beti inguratuz, iduri ez duela akabantzarik, yo goiti, yo beeiti, zer da kantu molde ori? Ori bertze paretan, erriko mutil gazte azkarrena, *irrintzinaz* doana artaldearen bila. ¿Zér musikak? Eta gero sarri, iluna edatu denean, eta arekin ichiltasuna ura bere errekan yeutsiko da kantuz, yoiten dituela arri kaillauak, aire ezti batekin. Ametzer eta aritzer trebes, aizeak intzire eginen du. Antik eta ementik, erakusterat emaiteko gauaz nagusi direla auntzek oiu zenbait eginen dute, acheriek zenbait chausi, eta oriek guziekilan beiak bazterretarik marrumaz, ardiak chintchila soinuz, zakurrak etche atetarik chanpaz eta oilarrak kukuruka. Zer musika!! Egiazki ez da niun lilluragarriorik.

Parisen badituzte bestak? Bai guk ere, eta gure eliza bestek ez dute eyener zorrik deusere. Bego Eskual-erria bere pilota partidekin. Bakarrik munduan, emaiten du choragarriko besta ori. Pilota partida! Eskualdunak choilki konpreni dezake zer su, zer gar, pilota partida batek ezartzen duen biotzean. ¡A! ez da gero nor nai pilotari! Bear da artako, zain, begi eta zango. Bakarrak dira gizonak irur abantail oriek dituztenak, eta Eskual-erritik kanpo, batere ez da. Bota pilota, eta errefera: armatik bala doan bezala, chichtrotik partitu da plaza zolaraino; abiatu deneko, ikusi du gibeleko partidak, yuyatu norako den, eta bi yauziz yarri, pilotari buruz; chinchtro puntan artu eta igorri du partitu den tokira, chimichta bezain laster. Zer ukaldiak, zer besoak, zer esku zartak! zer saltoak! Biba, biba pilotariak; Eskual-erriko ooria ziezte. Biba Larrondo, biba Chillar, biba Yatsa, biba zu Berterretche zure eskuko yo ikaragarriarekin. Biba zuek guziak aipatzen ez zaituztedanak, bainan berdin amodio merezi duzuenak, izan zaitezte beti pilotari azkar eta zuzen. Ez da Parisen zuek bezalakorik.

Duela zenbait urte, Parisen izan ziren, zien aitzineko pilotari Borotrarak. Segurki pilotan bazakiten, bainan Parisen ez zioten kasurik egin ere. Chimino bati yantzan, naiago dute so egin, pilotariari baino. Utz ditzagun, beren besta zarrekin; eyen besten ondotik, zanguak flako dire, begiak ilun, eta zainak il Eskualdunentzat, deusik ez dute balio.

Parisen badituzte elizak, eta eliza ederrak, urreztatuak, zeruetan gora bere buruak alchatuak dituztenak. Ala da!! Bainan Eskual-errian ere, naiz baden oraino eliza pobrerik, egiten ari dira eliza ederrak; ederrena Aazparnen, bertzerik aipatu gabe. Bainan eliza barnetan, nun dira usiago erabiltzen, Parisen ala Eskual-errian? Bear dauzuet erran,—ez da bear sekulan neor edo deusere mendratu—Parisen badire girichtino onak, sainduak, kartsutasunez beteak, elizetan maiz eta debotki egoiten direnak: bainan ek, bakarrak dire. Eskual-errian, denak elizan igande egunetan. ¡Zér loria! erri osoa, kadera eta galeria zoko guziak beterik! ¡Zér loria! erri ori guzia, bere liburua esku batean, bertzean arrosario igatu bat, kantuz errepikan, zaar ala gazteak, guziak batean. Zer loria adorazione egunean, denak lerro lerro, gizonak aitzinean, maain saindurat urbiltzen ikustea! Bazkuak orok egiten, ezkontza sainduak, ere bai, eta il ondoan, guzientzat lur saindua, guziek nai baitute sainduki il. Orra Eskual-erria.

Baditugu guk ere, gure makurrak: odola bizi eta makilak zalu.

Bainan entzun dut, Yainkoak, artakotz ere, eman dakola eskualdunari, kasko ezurra, bertzer baino lodiago. Ezagutzen dut gizona, berrogei eta amar makil ukaldi segurik, buru inguruan artu dituena, eta burua oso duena, zenbait zakarrekin. Bainan obe laiteke makilak geldi, eta bakarrik gure zanguen lagun.

Orra Eskualduna, eta berriz ere diot, naiago naizela eskualdun Parisiano baino, ez dela niun gure tokia bezalakorik.

¡Zer diozie Eskualdunak! Espantu pochi bat egin dudala! Baditake, bainan egiarik ere erran dut. Nola ez bainute Parisianuek leituko, zuek barkatuko dautazue, sinetsiz, biotzaren erditik Eskual-erria maite duen Eskualdun batek, izkribatu dituela, leitu dituzuen lerro ok.

DUVOISIN.